

URRETXUKO UDALEKO INGURUMEN POLITIKA

Udalerriko ingurumena eta bertako baliabide naturalak babesteko hartutako konpromisoarekin jarraitzeko asmoz, **URRETXUKO UDALA**ren Gobernu Taldeak ingurumena babesteko jarraibide hauek garatu ditu Lurralde Arloko langileekin batera:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat garatu eta ezartzea, gure jarduerak sistematikoki planifikatzeko eta kontrolatzeko funtsezko tresna gisa; jarduera, instalazio eta zerbitzuei lotutako ingurumen-inpaktuak minimizatzeko, ekonomia zirkularren eta iraunkortasunaren ikuspegitik.
- Gure jarduerari aplikatu dakiekeen ingurumen-legeria eta -araudia eta Urretxuko Udalak izenpetzen dituen beste ingurumen-betekizun batzuk betetzea.
- Etengabeko hobekuntzarako eta kutsaduraren prebentziorako konpromisoa ziurtatzea, gure ahaleginak Urretxuko Udalaren ingurumen-jarduna hobetzera bideratuz.
- Ingurumena babesteko eta etengabe hobetzeko helburuak eta xedeak ezartzea, eta horiek garatzeko ingurumen-programak egitea.
- Aldian-aldean, gure Urretxuko Udaleko ingurumen-jarduna berrikustea, ahulguneak detektatzeko, beharrezko ekintzak antolatze eta egindako aurrerapenak dokumentatzeko.
- Gure langileei informazioa eta prestakuntza ematea eta interesa piztea gure jarduerari eta haien funtzioei lotutako ingurumen-alderdiei buruz, lanpostuan duten portaera ingurumenarekiko modu arduratsuan gauza dadin.
- Ingurumen-politikaren ezarpena ziurtatzea, eta erakundearen beraren eta, oro har, jendearen eskura jartzea.
- Udalerrian Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzea, Tokiko 2030 Agenda ezarriz, jasangarritasunerako Europako hirien gutunean ezartzen den bezala, klima-alaketaren aurrean egokitzeko neurriak ezarriz, ekonomia zirkularra sustatuz, biodibertsitatea babestuz eta trantsizio energetikoa bultzatuz.
- Udal-ingurunea zaintzea, kalitate handiko zerbitzua eta udalerriaren garapen ekonomikoa bermatzeko gure eginkizuna eta kutsadura prebenitzeko eta ingurumena eta baliabide naturalak babesteko oinarritzko premisa bateragarri eginez, etengabeko hobekuntza-prozesu batean, gure jarduerak eta zerbitzuek eragindako inpaktuei aurre eginez.

Alkateak,



Sin. Jon Luqui Albisua